

Eusko Alkartasuna 2007-ko programa

XXI. mendeko gizarteok erronka handia jaso edo eskuratu dugu aurreko mendetik, hain zuzen ere, edozein gizakik bere burua eta bere gaitasunak ahalik eta gehien baliatzeko behar adina aukera izango dituela bermatzea.

Eusko Alkartasunako kideok uste dugu garatuak deitzen diren gizarteek, oro har, eta Beasaingoak, bereziki, lanean jarraitu behar dutela administrazio publikoen laguntzaz pertsona guztiek izan ditzaten aipatutako aukera horiek, hau da, pertsona guztiek gauzatu ahal izan dezaten euren hiritartasuna.

Eta hiritartasunak hiru ezaugarri, behintzat, izan behar ditu:

Herritartasun osoa behar du izan, eta horrek esan nahi du ezin duela askatasun zibil eta politikoetan bakarrik oinarritu, baizik eta eskubide sozialak, ekonomikoak eta kulturalak herritarren berezko eskubide gisa aitortu behar direla. Besteak beste, etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea bermatuta izan gabe hiritartasunaz hitz egitea egia osoa ez esatea, behintzat, bada.

Herritartasun erreala behar du izan, hain zuzen ere, araudiez eta diskurtsoez haraindian, udal-politika zehatzetan islatu dadin, eta hiru modutara, behintzat, sustatuta: gizakien eskubide guztiak babestean, sustatzean eta aurreikustean.

Herritartasun unibertsala, edota, beste era batera esanda, herritartasun inklusiboa, Beasainen bizi diren pertsona guztiek gauzatu ahal izatea helburu duena. Izan ere, eskubide bat unibertsala ez bada, pribilegio bat da, eta, hizkuntzaren, arrazaren, estatusaren edo adin jakin baten arabera gizatalde jakin batzuetara mugatzen den herritartasunak gauza bat baino ez du egiaztatuko: ez dagoela eskubide eta eginbehar konpartituen sistemarik.

Printzipio orokor horiek kontuan hartuta, datorren legealdiko gure kudeaketaren ezaugarriak honako hauek izango dira:

Zeharkako edo sailen arteko kudeaketa

Gure ustez Udal eremuek ez dute "sail estankoak" izan behar; gure ustez guztiek elkarrekin harremanetan egon behar dute.

Kalitatezko kudeaketa

Beasaindarrarentzat ez du beste zama bat izan behar Udaletxean egin beharreko kudeaketak, funtsezkoa da, beraz, administrazioko zereginak erraztea, teknologikoa berriak erabiltzea,... eta, horretarako, ezinbestekoa da administrazioaren barruan kalitatezko sistemak ezartzea.

Kudeaketa gardena

Beasaingo gizon-emakumeek Udaletxean gertatzen den guztiaren berri izan behar dute, eta, bereziki, kudeaketa ekonomikoaren berri.

Printzipioak eta kudeaketa-mota finkatu ondoren, besteak beste, datorren legealdian garatuko ditugun ekintzetako batzuk nabarmenduko ditugu:

Beasain 2015 “Errealitate berriak – Erronka berriak”

Plan Estrategikoa garatuko da, eta bertan sektore guztiek parte hartuko dute, errealitate berrietara egokitutako udal-eredu berri bat antolatu ahal izateko.

Herritarren parte-hartzea

Gure ustez parte-hartzea eskubide subjektiboa da eta Beasaingo gizon-emakume guztiek dute proposamenak egiteko eta entzunak izateko eskubidea. Horretarako, hitz ematen dugu auzoetan kontsultarako batzordeak edo foroak sortuko ditugula eta aldian behingo informazio-kanpainak egingo ditugula.

Etxebizitza

Gure herriko gazteek bere kasa bizitzen jartzeko duten arazo nagusietako bat etxebizitzarena da. Jabetzaren kulturaren ondorioz, eta etxebizitzaren prezioak direla-eta, ezinezkoa da herritar guztiek duten oinarrizko eskubideetako bat gauzatzea. Horretarako, beharrezkoa da etxebizitza babestua sustatzea, eta, bereziki, alokairuan hartzekoa.

Gizarte-ongizatea

Gure helburu nagusia, eta erronka ere bai, gizarte-eskubideak, kultura-eskubideak... betetzera baliabideak bideratzea da, hau da, adreiluaren aurrean herritarrari lehenetasuna ematea.

Euskara

Gure hizkuntza eta kultura sustatzea, gure nortasuna indartzeko elementu integratzaile den neurrian.

Ingurumenaren defentsa

Ingurumenarekiko sentsibilizazioa areagotzea eta ingurumenaren arloa hobetzea oinarrizko printzipioa izango da gure kudeaketan. Agenda 21ean ezarritakoa garatzen jarraituko dugu, eta, horretarako, teknikari bat kontratatzea proposatzen dugu. Hasteko, lanek eragiten duten zarata eragotzi beharko da, eta, horretarako, makina isilak erabiltzera behartu beharko dira.

Aparkalekua

Beasainen ezaugarrietako bat zerbitzu-udalerrria izatea da, bertako herritarrentzat nahiz inguruko herritakoentzat. Zerbitzuen sektorea bizirik badago, horrek esan nahi du herria ere bizirik dagoela. Horretarako, funtsezkoa da behar adina aparkaleku izatea, eta gure proposamena da parking bat eraikitzea osasun-etxe zaharreko lursailetan eta zeharkako aparkalekuak egitea posible den kale guztietan, hala nola, Nafarroa Etorbidean, telefonikako aldapan...

Auzo guztiak berdinak dira

Ez da lehenengo mailako eta bigarren mailako auzorik izango. Gure kudeaketan bidezko proportzionaltasuna gailenduko da mantenimendu eta hobekuntza inbertsioak egitean. Horretarako, funtsezkoa izango da auzoetako batzordeen edo foroen ardura.

Udaleko enparantza zaharberritzea

Enparantzaren egungo egoera ikusita, beharrezkoa da goitik behera zaharberritzea.

Urbieta kultura-zentroa zabaltzea

Zabaltze horretan hainbat espazio sortzea aurreikusten da: behar bezala egokitutako hitzaldien areto bat, formatu txikiko antzerki-jardueretarako areto bat, musika-emanaldietarako hosgabetutako espazio bat musika-jarduerak areagotzeko eta, bereziki, zentroa dagoen kaleko bizilagunei ahalik eta kalterik txikiena egiteko eta eskaeraren arabera egon litezkeen beste behar batzuei erantzuna emateko beharko lirartekeenak.

Murumendi Eskola

Atezaintza eta mantenimendu-lanak egingo lituzkeen pertsona bat izateko ahalbideratu.

Inbertsioak

Loinatz Baselizako eta San Martin Basilikako **lorategiak berritu**.

Hiriko altzariak aldatzen bukatu (jarlekuak eta paperontziak).

Mendaurren Etorbidean **argiteria eta espaloiak** aldatu.

Komunak jarri Olarango parkean eta Igartza inguruan.

Saskibaloiko eta futbitoko kantxa bat egin J.M. Barandiaran parkean.

Indarreko igarobidean **argiak jarri**.

Trenbide Kanean, aldenik alde, **landare berdeak** landatu trenbidea ezkutatzeko.

Juan Iturralde Kanean **zuhaitzak landatu** Renferen ezponda estaltzeko.

Haurrentzat beste parke bat egin Juan Iturralde Enparantzan.

Dolarea parkea eraldatzeko azterketa bat egin funtzionalagoa izan dadin eta inguruko bizilagunek erabili ahal izan dezaten.

Bideluze Kaleko **parkea (ponpategiaren ondokoa) berritu**.

Pergoletako lorategiak berritzeko **bigarren eta hirugarren faseak** gauzatu.

Zaldizurretatik N-1era sartzeko **errotonda txikia berritu**.

Hilerrian **kolunbario bat** kokatzerik dagoen aztertu.

Hilerriko zerbitzuetarako **jasogailu bat erosi**.

Irristagarriak izateagatik arriskutsuak diren **espaloi guztiak berritu**.

Pergoletako frontoia estali eta aisialdirako gunea zabaldu.

Azpiegiturak

Atal honetan arreta berezia merezi dute udalerrian dauden traba arkitektonikoeak eta bide-azpiegiturak.

Bide-azpiegiturei dagokienez, gure ustez honako jarduera hauei ekiteko garaia da:

Kale Nagusia oinezkoentzat egokitzea eta Nafarroa Etorbidekoa jarraitzea. Jarduera horren ondorioz, ordu jakin batzuetan zamalanetako ibilgailuak eta garajeen jabeak bakarrik ibili ahal izango lirateke kale horretan.

Larrialdietarako ibilgailuentzat, hala nola, suhiltzaile, anbulantzia... eta antzekoentzat, sartu-irtenak edo maniobrak egiteko **zailtasunak dituzten kaleak zabaltzea**... Presa du, esate baterako, Bista Alai kaleko zati batek.

Aparkaleku bat eraikitzea kamioientzat udalerritik hurbil.

Bidegorrien sarea osatzen joan eta, aldi berean, eskualdeko sarearekin lotu.

Abiadura jaisteko gailuak jarri.

Traba arkitektonikoei dagokienez, hainbat urrats eman dira, baina gure ustez oraindik asko dago egiteko. Horretarako, honako hau da gure proposamena:

Herrian dauden traba arkitektonikoen azterketa zehatza egin guztiak ezeztatzen joateko.

Berehala egin beharreko batzuk **zebra-bideak igotzea** izango litzateke (Esteban Lasa-Andramari, Peategi-Igartza Oleta,.....).

Ingurumena

Udalak zaindu, sustatu eta betearazi egin behar ditu udalerriko ingurumenaren kalitate egokia bermatzeko beharrezko diren ekintza guztiak.

Agenda 21ek eskualdean nahiz udalerrian hartu behar diren neurriak ezartzen ditu.

Berehala hartu beharko liratekeen neurrien artean guk honako hauek proposatzen ditugu:

Ingurumen-kudeaketako **teknikari bat kontratatzea**.

Herritarrak **sentsibilizatzea eta kontzientziaztea** hondakinak sortzeari eta birziklatzeari buruz, kontsumo iraunkorrari buruz (ura,...).

Airearen kalitatea hobetzeko beharrezkoa neurriak hartzea.

Lanetan **makina isilak erabili**.

Udal-foroa dinamizatzea, udalerriko elkarte eta sektoreekin beste dinamika bat sustatuz.

Beasaingo ondare naturalaren azterketa eta inbentarioa egitea, gerriko berde bat eratzeko.

Foru Aldundiaren aurrean beharrezko ikusten diren kudeaketak egitea N-1ean udalerritik igarotzen den zatian, **pantaila akustikoak jartzeko**.

BEASAIN TXUKUN kanpainaren bigarren fasea gauzatzea.

Etxebizitza

Jabetzaren kulturak eta etxebizitzak garestiak izateak eragiten dute, besteak beste, gure gazteak gero eta beranduago hastea bere kasa bizitzen. Lege-esparruan oso argi jasota dago etxebizitza izateko eskubidea oinarrizko eskubidea dela, baina errealitatean eskubide hori ez da gauzatzen.

Erakundeen eginkizuna funtsezkoa da arazo honi konponbidea emateko, eta, ondorioz, udalek, erakundeak diren aldetik, neurri ausartak abiarazi behar dituzte arazo hau arintzen edo konpontzen saiatzeko.

Une hauetan Porteria, Malkasko, Olanan... auzoetan proiektuan dauden etxebizitzak egin daitezela eta entrega daitezela eskatzeaz gainera, honako hau da gure proposamena:

Lurzorua gordetzea eta orubeak eskuratzea etxebizitza babestuak sustatzeko.

Etxebizitza babestuak eraikitzea, batez ere alokairuan ematekoak.

Epe bat ezartzea Arau Subsidiarioetan aurreikusitako orubeetan etxebizitzak eraikitzeko, eta, ostera, Udaletxearen esku jartzea berak eraiki ditzan. Herrian etxebizitzaren egiazko beharra zein den ikusteko azterketa zehatza egitea..

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat bizilagunen arteko tirabirengatik edota baliabide ekonomikorik ezarengatik igogailurik ez duten etxebizitzetarako irisgarritasunarena da. Gure proposamena honako hau da:

Gai honetan dagoen legeri berria zorrotz betetzea bizilagun-elkarte bakar bat ere ez dadin igogailurik gabe gera.

Udalaren dirulaguntzak gehitzea bere errentaren arabera instalazio-gastuak ordaindu ezin dituzten pertsona guztientzat.

Gizarte Politika

Lege-esparruak argi eta garbi ezartzen ditu herritar guztien eta bakoitzaren eskubide subjektiboak, eta, ondorioz, gure Udalaren gizarte-politikaren oinarriek babesa, prebentzioa eta aipatutako eskubidea sustatzea behar dute izan.

Gizarte-arloan jarduteko esparrua zabala eta konplexua da, eta, hain zuzen ere, horregatik, esku-hartzeek ez dute arazo izan behar, egiazko erronka baizik. Alde horretatik, beraz, eguneroko jardunaren lehentasunezko helburu izan behar da haurren, nerabeen, emakumeen eta hirugarren adinekoen esparruetan eskubideak urratzen diren aztertzea.

Guk, beraz, honako hau proposatzen dugu:

Sareak sortzea (osasunaren arloan, hezkuntzan, elkarten bidez) arrisku edo bazterkeria-egoerak, egoera babesgabeak... antzemateko eta, aldi berean, kasuak betikotzea saihesteko.

Gai jakinei buruzko **sentsibilizazio-kanpainak egitea**.

Erakundeen artean, eta bereziki Foru Aldundiarekin, elkarlanean aritzea gizarte-bazterkerian erortzeko arriskuan dauden kolektiboak enplegarritasun programetan eta, integratzeko.

Prestazio ekonomikoak, besteak beste Oinarrizko Errenta, herritar guztien eskubide subjektiboak dira, eta, zenbait kasutan, herritarrek ez dute horien berri izaten, edota, lotsa ematen dietelako edo, ez dituzte eskatzen. Horri aurre egiteko gure proposamena honako hau da:

Pertsonen egoerari buruzko azterketa xehatua egitea, arreta berezia eskainiz adineko gizon-emakumeei, euren beharrak hauteman eta laguntzak tramitatzeko.

Informazio-kanpaina jarraituak eta aktiboak egitea gizatalde guztiengana zuzenduta, beste erakunde batzuetatik sortutako programen eta onuren berri emateko.

Haurrak, nerabeak eta gazteak

Legeek, tratatuek,... oso argi ezartzen dute zein diren haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak, baina gogoeta bat egin behar da: betetzen al dira?, Udaletik sustatutako ekimenek helduen ikuspegia izan al dute abiapuntu?, neska-mutilek parte-hartze aktiboa izan al dute ekimen horietan, proposamenak egiteko aukerarik izan al dute?.

Familiatan izandako aldaketak, immigrante adingabeak gizarteratzeko zailtasunak, sortzen dituzten estereotipoak eta gizarte-inguruak, arrisku-jokabideak... guztiak ere oinarritzko alderdiak dira, eta kontuan hartu behar dira gure neska-mutilei zuzendutako edozein ekimen edo programa garatzeko. Azken batean, ezin dugu onartu gizatalde hori isilik egotea eta helduek proposatzen eta ezartzen dietena egitera mugatzen den kolektibo bat izatea.

Horretarako, beharrezkoa da:

Pertsonala kontratatzea egiazko **bultzada emateko** haur, nerabe eta gazteen sailari.

Informazio-bulego bat zabaltzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuarekin **lankidetzahitzarmen bat sinatzea** Beasainen haurrei, nerabeei eta gazteei buruzko plan oso bat gauzatu eta garatzeko.

Kirola

Gure ustez kirola ez da aisia betetzeko modu bat bakarrik; osasun-iturri ere bada. Horrenbestez, udalaren kirol-kudeaketak etengabe sustatu eta sentsibilizatu behar du jendea kirola egin dezan.

Udalak inbertsio handiak egin ditu kirol-instalazioetan. Inbertsio horiek Gipuzkoako herritarren diruarekin eta, bereziki, Beasaindarrenarekin egin ditu. Horregatik, biztanle-talde guztiak hartu behar ditugu kontuan instalazio berrietarako sarbidea ez dadin garestia izan, baizik eta erakargarria eta eskuragarria.

Ez ditugu ahaztu behar gure udalerrian kirola mantentzeko eta sustatzeko lanean ari diren kirol-elkarteak eta boluntario-taldeak.

Horren aurrean, gure proposamena honako hau da:

Sentsibilizazio-kanpainak egitea biztanle guztiei zuzenduta kirola egiteak dituen onuren berri izan dezaten.

Nerabeei, gazteei, hirugarren adinari eta zailtasun ekonomikoak dituzten pertsona guztiei **bonifikazioak ematea**.

Kirol-jarduera minoritarioen taldeak babestea jadanik finkatuta dauden taldeen aurrean.

Kirolaren arloko **boluntarioak prestatzea**.

Eskualdearekin **koordinatuta aritzea**.

Euskara eta kultura

Gure hizkuntza eta kultura sustatzea funtsezkoa da gure nortasuna indartzeko elementu integratzaileak diren aldetik.

Horretarako, gure proposamena honako hau da:

2007-2011 aldirako **Euskera Biziberritze Plan Nagusiarekin jarraitzea.**

Gure hizkuntzarako eta kulturarako sarbidea erraztea immigranteei, gure gizartean txertatzen laguntzeko.

Ikastetxeekin lankidetzan aritzea kulturaren arloko eskola-jardueretan.

Herriko tarte artistikoei laguntzea eta Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako zirkuituetan parte hartzea.

Herritarrek herriko jaiak eta auzoetakoak, udazken kulturala... antolatzen **parte har dezaten sustatzea.**

Beasaingo Paperak argitaratzen jarraitzea.

Elkarteekin lankidetzan aritzea sustatzen dituzten kultura-jardueretan hitzarmenak eguneratuz...